

Aldizkariaren informazio eta publikazio eremuak

Munibe Natur Zientziak lan zientifikoak argitaratzen ditu bai Artikuluak baita Oharrak ere, Geologia, Botanika, Zoologia eta Ekologia gaietan. Nahiz eta beste zonalde geografikoetan burutako lanak onartu, Munibe Natur Zientziaren ikerketa eremua Europako Hego-mendebaldea eta Afrikako Ipar-mendebaldea (Paleartiko ipar-mendebaldarra).

Munibe Natur Zientziak Latindex katalogoaren barnean aurki daiteke, bai eta Historical Abstracts, ICYT, Zoological Record, America, History eta Life-n laburtu eta indexatua ere. 2015tik, DOAJ sarbide libreko aldizkarien direktorioan txertatuta dago *Munibe Natur Zientziak* aldizkaria eta beraz, sarbide librekoa du (<https://www.aranzadi.eus/munibe>).

Artikulu bakoitzaren eskubideak egileenak dira, eta CC BY-NC-ND lizentziapean ematen dizkiote aldizkariari lehen argitalpenerako eskubideak. Beste batzuei lana partekatzeko aukera ematen die, egiletza eta aldizkari honen hasierako argitalpena aitortuz.

Munibe Natur Zientziak ez die egileei prozesatze-gasturik eskatzen.

Hizkuntza

Testua, ondoko hizkuntzetan idatzi ahal izango da: ingelera, gaztelera eta euskara. Lanaren hedapena ahalik eta zabalena izan dadin, lana ingelesez argitaratzea gomendatzen da. Argitalpen guztiak, bai Artikuluak baita Oharrak ere, laburpena eta hitz gakoak daramatzate aldizkariaren hiru hizkuntzetan.

Helarazitako lanak

Aldizkarirako testu zientifiko ezezagun eta argitaragabeak (zati bat argitaratu zaienak ez) bakarrik onartuko ditugu eta ez ditugu onartuko beste aldizkari batean, aldi berean, ebaluatzen ari direnak.

Munibe NZ-era bidalitako lanak, dokumentu bakarrean helaraziko dira, Word formatuan, Times New Roman 12, espazio bikoitza eta aldamen justifikatuekin. 2,5-eko marjinak utziz alde bakoitzean baita orrialdearen goiko eta beheko partean ere. Dokumentuaren orrialdeek zenbakituak beharko dute (zenbakiak, orrialdeen goiko eskuineko marjinan), baita testua osatzen duten lerroek ere.

Idatziak, posta elektronikoz helaraziko dira soilik, honako helbide honetara: munibecn@aranzadi.eus.

Behin hartu izanaren adierazpena beteta eta sinatuta dagoenean, original baten helarazpen data, lan bakoitzaren bertsio editatuan agertuko den heinean, aldizkariaren idazkaritzara

iristen den egunaren data izango da. Bestetik, original baten onarpen data, lanaren bertsio editatuan agertuko den heinean, Munibe NZ-ko Editore Nagusiak artikuluen egile nagusiari baiezkua ematen dioten egunekoa izango da.

Aldizkariak kanpo ebaluaketa sistema zorrotza du. Behin originala igorritakoan eta dokumentu honetan agertzen diren baldintzak betetzen direla bermatzearen, Editore Nagusiak Editore kide bati artikulua bidaliko dio, eta honek berriz bi ikuskatzaile izendatuko ditu haiek aztertu dezaten. Ebaluaketa prozesua bukatzerakoan, Editore Nagusiak egileari baiezkua eman, baldintza eta aldaketa batzuk betez onartu edo ezezko eman diezaioke.

Egileari(ei), lanaren onarpenaren, errefusaren edo agin beharreko aldaketen berri emango zaio, ahal den neurrian, idatzia jaso eta 2 hilabeteren barruan. Munibe Natur Zientziak aldizkariak argitalpenaren aldizkakotasunari garrantzi handia ematen dio. Autoreak gainera, epeak errespetatu beharko ditu beharrezko moldaketak egin behar badira.

Munibe NZ-ek, argitaratutako lanaren PDF-a eta artikulua argitaratua izan den Munibe CN-aren ale bat helaraziko die autoreei. Munibe CN urtarrian argitaratzen den urtean behineko aldizkaria da. Aurreko edizioan onartuak baina argitaratu gabe geratutako lanak *online first* argitaratuak izango dira.

Jatorrizko lanen ebaluazioa

Ebaluatzeako artikulua bat eta hari lotutako jaso izanaren adierazpena sinatuta jasotzen ditugunean, eskuizkribuaren lehen ebaluazioa egingo dugu; ebaluazio formala egingo dugu, hain zuzen. Aldizkariaren Erredakzioak aipu bibliografikoak eta horien zerrenda zehatz parekatuta egotea eta aipuak ondo jasota egotea eskatzen du (testuan aipatutako bibliografia guztia eskuizkribuaren amaieran, zerrenda batean, jaso behar da eta era berean, bibliografiaren atalean jasotako lan guztiek jatorrizko lanean aipatuta egon behar dute, gutxienez behin). Erredakzioaren kalitatea, testuaren estiloa eta ortografia ere aintzat hartuko dira, hurrenkera jakin baten arabera, eta alderdi horiek ere zaindu egin behar dira. Erredakzioak aukera izango du batzuk zein besteak ofizioz kentzeko, baldin eta parekatze hori Erredakzioak egiten badu eta irregulartasun gehiegi daudela erabakitzen badu. Era berean, artikulua atzera bota ahal izango ditugu artikulua akademikoen egitura formalik ez badute. Eskuizkribua ebaluatzea bidali baino lehen, aztertu egingo ditugu lehen aipatutako puntu guztiak ere, aldizkariaren arauak forma aldetik betetzen direla ziurtatzeko. Aldizkariaren arauetan ezarritakoa behin eta berriro hausten bada, jatorrizko lana behin betiko atzera bota ahal izango dugu adituei ebaluatzeako bidali gabe.

Aldizkariak kanpoko ebaluazioa egiteko sistema zorrotza du. Jatorrizko lana jaso ondoren, beherago adieraziko ditugun forma-zehaztapenak kontuan hartuta, aldizkariaren editore nagusiak editore gonbidatu bat proposatuko du lana ebalua dezan. Editore gonbidatuak jatorrizko lana kanpo-azterketarako prestatuko du itsu bikuneko sistema erabiliz; hau da, eskuizkribuaren egileari edo egileei buruzko erreferentzia guztiak kenduko ditu, eta bere erreferentzia bibliografikoen ordeztu AUTOCITA hitza jarriko du testuko bidaltze-marketan; horrez gain, zerrenda bibliografikoko aipamen osoak ere kenduko ditu. Bestalde, bi, hiru edo lau ebaluatzaile aukeratuak ditu ekarpen bakoitzerako, eta haien txosten anonimoak, arrazoituak (aurrez erabakitako eta ebaluatzaile guztiei jakinarazitako formatu bat erabiliz, eta hura betetzeko jarraibide zehatzak kontuan hartuta), eskuizkribuaren lehen sinatzaileari (edo korrespondentzia-egileari) helaraziko zaizkio, egokitzapenak egin ditzan. Jakinarazpenean adieraziko da “Zuzenean onartuta”, “Aldaketa txikiekin onartuta”, “Aldaketa handiekin onartuta” edo “Baztertuta” epaia, eta epai hori, edozein izanda ere, behar bezala arrazoituko da kasuan kasuko kanpo-txostenetan. Parte hartzen duten alderdi guztien anonimotasuna zorrotz zainduko da prozesu osoan. Egileek konpromisoa hartuko dute aldizkariaren Erredakzioarekin aldaketak egiteko adostutako epeak betetzeko. Egileek aukera izango dute artikuluen lehen inprenta-proba zuzentzeko, baldin eta Erredakzio Batzordeak proposatutako epeak betetzen badituzte. Komunikaziorako bide elektronikoa erabiliko da ahal denean, izapideak ahalik eta arinen egin ahal izateko. Jatorrizko lana jasotako eguna eta haren behin betiko onarpen-data argitaratutako testuaren idazpuruan agertuko dira. *Munibe Ciencias Naturales* aldizkariak artikuluen amaierako testu elektronikoak (PDF) helaraziko dizkio ekarpenaren lehen sinatzaileari, baita aldizkari osoaren ale bat ere, eskatzen badu. *Munibe Ciencias Naturales* aldizkariak berebiziko garrantzia ematen dio aldizkariaren maiztasuna zorrotz.

Egitura

Artikuluen egiturak honako atalak beharko ditu izan (Oharrek ez dute atal ezberdinik behar, baina paragrafoak nolabaiteko ordena beharko dute izan eta Sarrera, Metodoa, Emaita eta Ertabaida atalekin bat etorritik):

- Hasierako orrialdearen edukiak:
 - Izenburua. Izenburua minuskuletan idatzia.
 - Izenburu laburtua (gehienez 80 karaktere)
 - Egileen zerrenda. Autoreen izena jarraian adierazten den moduan: “Pedro Larra”, “Pedro Larra-López”, “Pedro M. Larra”.
 - Egileen afiliazioa eta korrespondentziarako autorearen helbide elektronikoa.

- Laburpena. Laburpenak gehienez 250 hitz izango ditu. Artikulua idazteko erabili den hizkuntza berebean eta baita aldizkariaren beste bi hizkuntza ofizialetan idatzia beharko du izan (ingelesa, gaztelera eta Euskara). Laburpena aldizkariaren hiru hizkuntza ofizialetatik bitan soilik bidaltzera dago behartua autorea.
- Gako hitzak. Gehienez 8 gako hitz. Laburpena bezalaxe hauek ere artikulua idatzia izan den hizkuntzan eta aldizkariaren bigarren hizkuntza ofizialen batean idatzi beharko ditu autoreak.
- Sarrera. Ahalik eta labur eta zehatzen izan behar du, gaiaren inguruko ezagutza eta egiten diren ekarpenak azpimarratuz. Lanaren inguruko hipotesi eta helburua(k) ere adierazteko gunea ere izan daiteke, hala nahi izanez gero.
- Materialak eta metodoak. Ikerketa egin den gunea eta denbora epea ere garbi adieraziak behar dute. Ikerketa metodoak, estatistika analisiak baita ikerlariak garrantzitsutzat duen beste edonolako informazioa irakurleari lagungarri izango zaiona lanaren metodologiaren inguruko nondik norakoak ulertzeko. Erabilitako metodologiak, sarreran aipatutako helburuekiko, aproposa behar du izan. Gainera, metodologiaren deskribapena ahalik eta zehatzena izan behar da beste ikertzaileek erabili ahal izateko.
- Emaitzak. Hauen azalpenak, txukuna, laburra eta zehatza behar du izan.
- Diskusioa. Sarreran emandako helburuei eta lortutako emaitzei egokitua eta zehatza behar du izan. Azalpen gogoetatsuak edo eta emaitzetako ondorio ez direnak saihestu behar dira. Behar izanez gero azalpen espekulatiboak ahalik eta motzen izan daitezela.
- Eskerrak. Atal hau hautazkoa da.
- Bibliografia.

Testu barruko bidaltze-marka edo aipu bibliografikoetan, egilearen edo egileen lehen abizena (edo biak, marratxo baten bidez lotuta) idatziko da (izenaren lehen letra idatz daiteke zenbait egile nahasteko aukera badago soilik), baita lana argitaratu den urtea ere, tartean koma bat dagoela (Margalef, 1944) o (Margalef-López, 1944). Egile beraren urte bereko zenbait sarrera badaude, letra xehe bat gehituko da testuko aipuetan eta zerrenda bibliografikoan (adibidez, 1972a, 2006c, eta abar). Bi egile badira, biak aipatuko dira, eta lana argitaratu den urtea (Margalef eta Ponz, 1957). Hiru egile edo gehiago badira, lehen egilearen abizena idatz daiteke, eta horren ostean, *et al.* formula letra etzanean (Margalef *et al.*, 1944). Testu barnean idatzitako bibliografia parentesi artean eta ondoren adierazi den moduan azalduko da: “(Autorea, 1998; Autorea & Autorea, 1998; Autorea et al., 2000)”. Edo, “... Autorea-k (1998) adierazi zuen bezala ...”. Komunikazio pertsonalak aldiz, “Autor (kom. perts.)” moduan adieraziko dira; aurkezten diren datuak, argitaratu gabeak badira berriz, “Autorea (argitaragabe)”; behaketa pertsonalen kasuan, honela adieraziko da “Autorea (obs. perts.)”. Autoreen izena minuskulaz jarriko da (bersaleak eta maiuskulak ezin dira erabili).

Testuko bibliografia azken atala izango da, eta ez zaio zenbakirik jarriko. Egile edo egile-talde bakoitzeko, aipatu nahi diren lanak edizioaren dataren arabera antolatuko dira, eta informazio hau jasoko da jarraian: lanaren izenburua, aldizkariaren izenburua, bolumena eta orrialdeak. Monografia bat bada aldizkari bateko artikulua baten orde, argitaletxea eta argitaratu den hiria ere adieraziko dira. Lan kolektibo baten kapitulu bat bada, lan hori ere aipatu beharko da eta, horretarako, aurreko irizpideei jarraituko zaie. Esate baterako:

Monografia:

Lewis-Williams, D., 2002. *The Mind in the Cave*. Thames & Hudson, London.

Monografiako kapitulua:

Maroto, J., 2014. Localities of Reclau. In: Carbonell, E., Bermúdez de Castro, J.M., Arsuaga, J.L. (Coors.), *Pleistocene and Holocene Hunter-Gatherers in Iberia and the Gibraltar Strait: the current archaeological record*, 246-255. Universidad de Burgos, Burgos.

Biltzar bateko aktak:

Utrilla, P., Baldellou, V., Bea, M., Montes, L., Domingo, R., 2014. La Fuente del Trucho. Ocupación, estilo y cronología. In: Corchón, S., Menéndez, M. (Eds.), *Actas del coloquio Cien años de arte rupestre paleolítico. Centenario del descubrimiento de la cueva de la Peña de Candamo (1914-2014)*, 119-132, Ediciones Universidad de Salamanca.

Aldizkari bateko artikulua:

Velasco-Vázquez, J., Esparza, A., 2016. Muertes ritualizadas en la Edad del Bronce de la Península Ibérica: un enterramiento inusual en Los Rompizales (Quintanadueñas, Burgos). *Munibe Antropologia-Arkeologia* 67, 75-106.

Artikulua aldizkari baten ale berezi batean:

Fontes, L.M., Straus, L.G., González-Morales, M.R., 2016. Lithic raw material conveyance and hunter-gatherer mobility during the Lower Magdalenian in Cantabria, Spain. In: Cacho, C., Iakovleva, L. (Guest Eds.), *Landscape Analysis in the European Upper Palaeolithic. Reconstruction of the economic and social activities*. *Quaternary International* 412 (A), 66-81.

Munibe Natur Zientzako Erredakzioak bibliografiaren bilduma eta erreferentziak era zehatzean berrikusteko eskatzen die egileei (aipatzen den bibliografia guztia idatziaren bukaera zerrendatuko da; era berean, bibliografian agertzen diren lanen erreferentzia gutxienez behin agertuko da artikuluan).

Lanak daramatzan taula eta irudi guztiak, dokumentuaren amaieran atxikituko dira. Taula bakoitza orrialde bereiztu batean eta goiburu argibidea aurretik duela. Irudien kasuan ere berdin eta bai bata eta bai besteak, zenbaki arabikoz izendatuko dira (1, 2, 3, ...). Taulak eta irudiak ez dira inolaz ere testuan barneratuak izango, baizik eta agertzen diren ordenan artikulua edo oharren bukaeran txertatuko dira. Artikulu edo Oharren testuan taula eta irudiak erreferentziatuak izango dira parentesi artean. Adibidez: “helduek, gazteek baino pisu handiagoa zuten (Taula 1; Ir. 1).” Honez gain, autoreek kalitate handian eta bereiztutak bidaliko dituzte figura guztiak. Gomendagarria da 600 ppp-ko gutxieneko erresoluzioa izatea, EPS, JPG eta TIFF formatuetan.

Datak horrela adieraziko dira “01.01.2010”

Espezieen Nomenklatura

Espezieak izendatzeko, izen zientifikoa erabiliko da eta honen ondoren, egilearen izena idatziko da, Nomenklatura Internazionalaren Kodearen arauak jarraituz (Botanikan, edo Zoologian, kasuaren arabera). Espeziearen izena lehen aldiz aipatua izan ondoren, izen laburtua erabiliko da. Adibidez: “*Sylvia atricapilla* L., 1758”; edo “*S. Atricapilla*”. Espezien izenak beren osotasunean adieraziko dira, lehen aldiz agertzen direnean bai izenburuan, bai laburpenean, baita testuan ere.

Autoretzak saihestu ahal izango dira, egileek izen zientifikoak interpretatzeko erabilitako erreferentzia ezagutzera emanez gero. Hau bereziki erabilgarria izango da, espezie asko barneratzen dituzten lanetan. Adibidez: “Taxoien izendapen eta autoretzarako, Flora Iberikako irispideak jarraitu dira”.

Espeziea izendatzeko erabiltzen den izen arrunta hautazkoa da eta erabili nahi baldin bada, hizki minuskuletan idatzi beharko da. Adibidez: “txinbo kaskabeltz *Sylvia atricapilla* L., 1758”. Behin espeziea izen arruntaz idatzi eta gero, artikulua osoan zehar izen arruntaz adieraziko da. Izan arruntik ez duten espezieak badaude artikuluan, hauek ez erabiltzea gomendatzen da.

Toponimiak

Leku, eskualde eta herrialdeak izendatzerakoan, toponimia ofiziala erabiliko da.

ALDIZKARIA ARGITARATZEKO JARRAIBIDE ETIKOAK

Adituek ebaluatutako (*peer-reviewed*) aldizkari batean ikerketa-artikulu bat argitaratzea funtsezko oinarria da jakintza-sare koherente eta errespetatu bat garatzeko. Egileen eta horien erakunde babesleen lanak duen kalitatearen zuzeneko erakuslea da hori. Adituek ebaluatutako ikerketa-artikuluak metodo zientifikoaren euskarri eta adierazle dira. Garrantzitsua da, beraz, argitaratzean parte hartzen duten alderdi guztiengandik espero den jokabide etikoaren arauak adostea; hona alderdiak: egilea, aldizkariaren editorea, aditu ebaluatzailea, argitaratzailea eta elkarrearen jabetzekoak edo babespekoak diren aldizkariak.

Argitaratzailearen funtzio garrantzitsuetako bat zera da, erregistro akademikoaren zuzentasunari euste aldera aldizkariaren editoreek egiten duten ahalegin handiari eta aditu ebaluatzaileek askotan egin arren baliorik ematen ez zaion borondatezko lanari babesa ematea. Hala, jardunbide akademikoari gorazarre egitea, sistemak ondo funtzionatzea eta arazoak nahiko ezohikoak izatea. Argitaratzailearen zeregina da komunikazio akademikoari babesa, dedikazioa eta laguntza eskaintzea eta bera da, azken finean, jardunbide egokienak erabiltzen direla ziurtatzearen arduraduna.

Konpromisoa dugu publizitateak, berrargitaratzeak edo bestelako diru-sarrera komertzialek argitaratze-erabakietan inpakturik edo eraginik izan ez dezaten. Gainera, Aranzadi Zientzia Elkarreak laguntza eskaintzen du beste aldizkari eta/edo argitaratzaileekin izaten diren komunikazioetan, baldin eta editoreentzat lagungarria bada. Azkenik, elkarlan estua dugu aholku espezializatuak emateko ere. beste argitaratzaile eta industria-elkarte batzuekin, etika-kontuetan, akatsetan eta atzera-egiteetan jardunbide egokiak izateko arauak ezartzeko eta gainera, badugu gaitasuna lege arloko azterketa eta.

Egileen betebeharrak

-Txostenak egiteko arauak

Jatorrizko ikerketen txostenen egileek egindako lanaren azalpen zehatzak aurkeztu behar dituzte; baita egindakoaren garrantziaren azalpen objektibo bat ere. Lanaren oinarrian dauden datuak ere zehatz aurkeztu behar dira ikerketa-artikuluari. Beste norbaitek kopia bat egin ahal izateko adina xehetasun eta erreferentzia izan behar ditu ikerketa-artikuluak. Iruzurrezko adierazpenak edo nahita oker adierazitakoak jokabide ez-etikotzat ditugu eta ez ditugu onartzen.

Berrikuspenek eta argitalpen profesionaletako ikerketa-artikuluak ere zehatzak eta objektiboak izan behar dute eta 'iritzi' editoriala jasotzen duten lanetan argi adierazi behar da gisa horretakoak direla.

-Datuetarako sarbidea eta datuak atxikitzea

Egileei eska dakieke ikerketa-artikulu bati lotutako datu landu gabeak aurkez ditzatela berrikuspen editorialerako eta datu horietarako sarbide publikoa emateko prest egon behar dute hala egin daitekeenean. Horrez gain, argitaratu ondoren, datu horiek zentzuzko epe batean atxikitzeko ere prest egon behar dute.

-Originaltasuna eta plagioa

Egileek ziurtatu behar dute idazten dituzten lanak erabat originalak direla eta beste batzuen lana eta/edo hitzak erabiltzen badituzte, erreferentzietan edo aipuetan behar bezala jaso behar dituzte.

Plagioak askotarikoak izaten dira; adibidez, beste baten ikerketa-artikulu egilearena balitz bezala aurkeztea, beste baten lanaren zati garrantzitsuak kopiatzea edo parafraseatzea (hari egile-izaera aitortu gabe), edota beste batzuek egindako ikerlanen emaitzak nork bere egitea. Plagioa, dituen modu guztietan, jokabide ez-etikoa da argitaratzeetan eta onartezina da.

-Argitaratze anizkunak, erredundanteak edo aldi berekoak

Egileek, oro har, ez lituzkete aldizkari edo argitalpen nagusi batean baino gehiagotan argitaratu behar funtsean ikerketa bera deskribatzen duten eskuizkribuak. Eskuizkribu bat publikazio batera baino gehiagotara aldi berean aurkeztea jokabide ez-etikoa da argitaratzeetan eta onartezina da.

Egileek, oro har, ez lukete lehendik argitaratuta duten ikerketa-artikulu bat beste aldizkari batera proposamen gisa bidali behar. Ikerketa-artikulu mota batzuk (adibidez, jarraibide klinikoak, itzulpenak) aldizkari batean baino gehiagotan argitaratzea justifikagarria da batzuetan, baldin eta zenbait baldintza betetzen badira. Aldizkarietako egileak eta editoreak ados jarrita egin behar dira bigarren argitaratzeak (hala dagokionean) eta hasierako dokumentuaren datu eta interpretazio berdinak jaso behar ditu bigarrenak ere. Hasierako laneko erreferentziak jaso behar dira bigarren argitaraldian.

-Iturriak adieraztea

Besteen lana behar bezala aitortu behar da beti. Egileek aipatu egin behar dituzte egin duten lanaren izaera zehaztean eragina izan duten argitalpenak. Modu pribatuan eskuratutako informazioa, hala nola elkarriketetan, korrespondentzian edo hirugarren batekin izandako eztabaidan eskuratutakoa, ez da erabili edo aipatu behar, baldin eta datuen iturriaren berariazko baimen idatzirik ez bada. Zerbitzu konfidentzialetan eskuratutako informazioa, hala nola eskuizkribuak epaitzeko lanetan edo beka-eskaeretan lortutakoa, ez da erabili behar, baldin eta zerbitzu horietako lanaren egilearen berariazko baimen idatzirik ez bada behintzat.

-Ikerketa-artikuluaren autoretza

Egileen artean, azterlana sortzen, diseinatzen, gauzatzen edo interpretatzen ekarpen garrantzitsua egin dutenak bakarrik sartu behar dira. Ekarpen garrantzitsua egin duten guztiak sartu behar dira egilekideen zerrendan. Ikerketa-proiektuaren alderdi garrantzitsuetan parte hartu duen beste pertsonarik balego, horien lana ere aitortu egin behar da kolaboratzaileen zerrendan.

Dagokion egileak ziurtatu behar du parte hartu duten eta ikerketa-artikuluari sartu beharreko egilekide guztiak sartuta daudela eta sartu behar ez direnak ez daudela sartuta. Horrez gain, ziurtatu behar du egilekide guztiek ikusi eta onetsi dutela ikerketa-artikuluaren azken bertsioa eta ados daudela argitaratzearekin.

-Zabalkundea eta interes-gatazkak

Egile guztiek adierazi behar dituzte eskuizkribuetan izandako finantza arloko edo bestelako interes-gatazka garrantzitsuak, eskuizkribuaren emaitzetan edo interpretazioan eragina izan badezakete. Proiektuak jasotako finantza-laguntzaren iturri guztiak adierazi behar dira.

-Funtsezko akatsak argitaratutako lanetan

Egile batek argitaratu dioten lanean akats edo oker nabarmen bat aurkitzen duenean, betebeharra du aldizkariaren editoreari edo argitaratzaileari berehala horren berri eman eta editorearekin batera ikerketa-artikulu bat atzera botatzeko edo zuzentzeko elkarlanean aritzeko. Editoreak edo argitaratzaileak hirugarren batek adierazita jakiten badu argitaratutako lan batek akats nabarmen bat duela, egileak ikerketa-artikulu berehala atzera botatzeko edo

zuzentzeko, edota editoreari jatorrizko ikerketa-artikulu zuzen dagoela erakusten duten frogak aurkezteko betebeharra du.

Editoreen betebeharrak

-Argitaratze-erabakiak

Adituek ebaluatzen duten aldizkari honen editore nagusiak du aldizkarira heltzen diren ikerketa-artikuluetatik zein argitaratuko den erabakitzeko ardura eta askotan, dagokion elkartearekin batera arituko da lanean (elkartearen jabetzakoak edo babespekoak diren aldizkarietan). Lan bakoitzaren balioa eta ikertzaileentzat eta irakurleentzat duen garrantzia izango dira beti erabaki horiek hartzeko irizpideak. Editore nagusiak gidari izango ditu aldizkariaren argitaratze-batzordearen irizpideak eta muga izango ditu, berriz, une bakoitzean kalumnien, copyright arau-hausteen eta plagioaren inguruan indarrean diren lege-xedapenak. Editoreak beste editore edo ebaluatzaile batzuei (edo elkarteko arduradunei) kontsulta egin ahal izango die erabakia hartzeko.

-Joko garbia

Editoreak, eskuizkribuak ebaluatzean, eduki intelektualari erreparatu behar dio, edozein direla ere egileen arraza, generoa, sexu-orientazioa, erlijio-sinesmena, jatorri etnikoa, herritartasuna edo filosofia politikoa.

-Konfidentzialtasuna

Editore nagusiak eta erredakzio-taldeko kideek ez diote jasotako eskuizkribuei buruzko informaziorik emango egilea, ebaluatzailea, ebaluatzaile izateko hautagaia, beste argitaratze-aholkularia eta argitaratzailea ez den beste inori.

-Zabalkundea eta interes-gatazkak

- Aurkeztutako eskuizkribuetan sartutako material argitaragabea ezingo da erabili editorearen ikerketa propioetan, egilearen berariazko idatzizko baimenik gabe behintzat.
- Informazio pribilegiatua edo kide ebaluatzaileen bidez lortutako ideiak konfidentzialtasunez tratatu behar dira eta ez dira norberaren onurarako erabili behar.
- Editoreek uko egin behar diote interes-gatazkak sortzen dizkieten eskuizkribuak aztertzeari (koeditore, editore-kide edo argitaratze-batzordeko beste kide bati eskatu behar lioke berrikuspena egin eta erabakia har dezala); hau da, ez dituzte

eskuizkribuak aztertu behar, baldin eta egileekin, enprekin edo ikerketa-artikuluei lotuta egon daitezkeen erakundeekin lehia, lankidetzaz edo beste mota bateko harremana edo lotura badute.

- Editoreek kolaboratzaile guztiei eskatu behar die azal ditzatela dituzten lehia-interesak eta zuzenketak argitaratu behar dituzte, baldin eta, ikerketa-artikuluak argitaratu ondoren lehia-interesak daudela ikusten bada. Behar izanez gero, beste ekintza batzuk ere egin behar dira; hala nola atzera-egite ohar bat edo irregulartasun-adierazpen bat argitaratzea.
- Babestutako gehigarrietan, ziurtatu egin behar da adituen ebaluazio-prozesua aldizkari nagusian erabiltzen denaren berdina dela. Babestutako gehigarrietako elementuak merezimendu akademikoa eta irakurleen interesa bakarrik kontuan hartuta onartu behar dira eta ez irizpide komertzialek eraginda.
- Adituek ebaluatu gabeko atalak argi identifikatu behar dira.

-Partaidetza eta lankidetzaz ikerketetan

Editoreek, argitaratzailearekin (edo elkartarekin) batera, neurri eraginkorrak hartu behar dituzte aurkeztutako eskuizkribu bati edo argitaratutako ikerketa-artikulu bati buruz kexa etikoak jasotzen direnean. Neurri horien artean egongo dira, normalean, eskuizkribuaren edo ikerketa-artikuluaren egilearekin harremanetan jartzea eta egindako kexa edo erreklamazioei dagokien arreta eskaintzea, bai eta jakinarazpen gehiago egitea ere dagokion erakunde eta ikerketa-erakundeetara. Kexa berretsi egiten bada, zuzenketa, atzera-egitea, irregulartasun-adierazpena edo beste oharren bat argitaratu beharko da, hala badagokio. Argitaratzeetan salatzen diren jokabide ez-etiko guztiak sakon aztertu behar dira, baita argitaratu eta handik urteetara egindakoak ere.

Ebaluatzaileen betebeharrak

-Ekarpena argitaratze-erabakietan

Adituen ebaluazioek editore nagusiari eta editore gonbidatuari lagundu egiten diete argitaratze-erabakiak hartzen eta egilearekin argitaratzearen inguruko komunikazioak gauzatuz, egileari ere laguntzen diote ikerketa-artikuluak hobetzen. Adituen ebaluazioa funtsezko osagaia da komunikazio akademiko formalean; metodo zientifikoaren muina da. Arantza Zientzia Elkartearen iritziz, beste askoren iritziarekin bat eginez, argitalpenetan parte

hartu nahi duten aditu guztiek dute adituen ebaluazio horietan bidezko neurrian parte hartzeko betebeharra.

-Garaiz ibiltzea

Epaile-lanak egiteko aukeratzen den pertsonak uste badu ez duela eskuizkribu batean helarazitako ikerlana ebaluatzeko gaitasunik, edo baldin badaki ezingo duela ebaluazioa garaiz egin, editoreari jakinarazi behar dio eta ebaluazio-prozesutik kanpo gelditu behar du.

-Konfidentzialtasuna

Ebaluatzeko jasotzen diren eskuizkribuak konfidentzialtasunez tratatu behar dira. Ez zaizkio eskuizkribuak inori erakutsi behar, ezta inorekin eztabaidatu ere, baldin eta editoreak horretarako baimenik ematen ez badu behintzat.

-Objektibotasun-arauak

Ebaluazioak objektibotasunez egin behar dira. Egileari kritika pertsonala egitea desegokia da. Epaile-lanak egiten dituztenek haien ikuspuntuak argi azaldu eta argudioen bidez babestu behar dituzte.

-Iturriak aitortzea

Ebaluatzaileek identifikatu egin behar dituzte egileek aipatu gabe utzitako lan argitaratuak. Ohar, ondorio edo argudio bat lehendik azaldu izanaren inguruko adierazpenekin batera, dagozkien aipuak adierazi behar dira. Ebaluatzaile batek editorea ohartarazi egin behar du, baldin eta ebaluatzen ari den eskuizkribuaren eta ebaluatzaileak ezagutzen duen beste ikerketa-artikulu argitaratu baten artean antzekotasun nabarmenik aurkitzen badu.

-Zabalkundea eta interes-gatazkak

Aurkeztutako eskuizkribuetan sartutako material argitaragabea ezingo da erabili ebaluatzailearen ikerketa propioetan, egilearen berariazko idatzizko baimenik gabe behintzat. Informazio pribilegiatua edo kide ebaluatzaileen bidez lortutako ideiak konfidentzialtasunez tratatu behar dira eta ez dira norberaren onurarako erabili behar. Ebaluatzaileek ez dituzte aztertu behar interes-gatazkak sortzen dizkieten eskuizkribuak; hau da, ez dituzte ebaluatu behar, baldin eta egileekin, enprekin edo ikerketa-artikuluei lotutako erakundeekin lehia, lankidetzara edo beste mota bateko harremana edo lotura badute.